

Nicanor Zabaleta

Euskaldunon Egunkaria, 1993-04-14: 2.

Puerto Ricon, bere emaztearen jaioterrian, hil da munduan ospatsua izan den Nicanor Zabaleta harpa jole donostiarra. "Harpa jole" edo "adar jole" esaten diogu euskaldunok lagun-abarreko hizkuntzan txantxetan edo burlaz datorrenari. Ez dakit zergatik. Gure artean oso musika-gailu estrainoa zelako, gehienbat zeruko aingeruen eskuetan bakarrik ikus ohi genituelako. Baina harpak badu bere tradizio idatzia Euskal Herrian. Ez izen honekin, "maniura" hitzarekin izendatua baizik: Joannes Etcheberrik XVII.ean neurtitzez: "maniuretez artzainek / errepikatzen dute" eta, erraten du; eta baita XIX.ean Duvoisinek ere Itun Zaharra itzultzen duenean ere: "Munduz mundu cebilena / Daud berak eguiten, / maniurez cioela / aiciñean cantatcen". Aita Donostiak esan eta Auñamendik errepikatua jaso dut hau. Neuk ikus-entzun nuen lehen harpa jole euskalduna Caracaseko Eusko Etxe berria 1950an zabaltzerakoan eraturako jaietan izan zen, Agirre Lehendakaria, Joseba Rezola eta Jesus de Galindez gonbidatu berezi bezala bertan genituela. Nork igarri niri hamar urte lehenago honelako gertakaririk! Bada, aste hartako bi egunetan eman zituen Zabaletak kontzertuak, nahiz eta Frankismoa indar handiaz beste urte asko iraungo zituen!, Caracaseko Eusko Etxea separatista gorrien egoitzan! Han aritu zen bi egunez egitarau ofizialak eta Caracaseko prentsa guztiaren argitan. Egun, hau ez da sorpresa, baina orduan izan zuen zentzu garbia! Gaur, harpa jole euskaldun ospatsua hil denean aipatu ditu prentsa espainolak honek Estatu mailan jasotako sari ofizialak, eta geuk geurean ez asko Euskal Herriko erakundeek eskainitakoak.